

2019 / 2020 ikasturtea

**PRESIOAK ERAGINDAKO ULTZEREN PREBENTZIOA**  
**BPSO PROIEKTUA**

**Nahikari Eugenio Folgado**



*«Lan hau egiteko, Zaintzen Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentroetan®  
Jardunbide Egokiak ezartzeko programaren datuak eta metodologia erabili dira.  
Hori dela eta, egileak bere eskerrak eman nahi dizkio "Zaintzen Bikaintasunarekin  
Konprometitutako Zentroetan® jardunbide egokiak ezartzen lan egiten duen  
lantaldeari"»*



## **LABURPENA**

**Sarrera:** Osasun sailak Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zituen Legegintzaldirako Ildo Nagusi orokorretan, osasun sistemaren jardueraren ardatz nagusia pertsonak direla adierazten du. Gainera, pazientearen segurtasuna osasun asistentzialaren elementu garrantzitsua da. Alor horretan, 2013-2016ko Osakidetzako Pazientearen Segurtasunaren zazpigarren lerro estrategikoan presioak eragindako ultzerak segurtasun arazo garrantzitsua direla azpimarratzen da, horien % 95 prebenitu daitezkelarik. Gainera, kostu handia suposatzen dute. Horregatik, Osakidetza BPSO, Zaintzen Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentroen, programara batu da, presioak eragindako ultzeren prebentzio eta arriskuaren balorazio gidak, helduengan presioak eragindako ultzeren arriskua identifikatzen lagunduko baitie erizainei esparru guztietan.

**Helburuak:** Osakidetzak, Donostia Unibertsitate Ospitalean, presioak eragindako ultzeren prebentzioan gauzatzen duen proiektuan parte hartzea da.

**Jarduerak eta emaitzak:** programan zehar hainbat jarduera gauzatu dira. Hasiera batean, taldeko bilerak egin dira sustatzaileak gaien kokatzeko. Gero, difusio jardueretan parte hartu da erorketen inguruan hauen prebentzioa sustatzeko eta presioak eragindako ultzeren inguruan kontzientzia sortu eta BPSO proiektuaren berri emateko. Bukatzeko, ebaluazio jardueren barruan, aurreko urteetan egin diren dokumentuen azterketa sakon bat egin da.

**Gogoetako jarduna:** BPSO proiektuaren parte izateak ospitalean dauden beste eremuak ezagutzeko eta ezagutza desberdinak garatzeko aukera ematen du, erizaintzako graduan eskuratzen ez direnak. Horrez gain, suertatu daitezkeen oztopoei aurre egiten ikasten ere laguntzen du. Era berean, erizainen lana ezinbestekoa dela ebidentzian jartzen du.

**Hitz gakoak:** BPSO, erizaintza, presioak eragindako ultzerak.



## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. HELBURUAK .....	4
3. JARDUERAK ETA EMAITZAK .....	5
3.1. Taldeko bilerak .....	5
3.2. Difusio jarduerak .....	7
3.2.1. Erorketak prebenitzeko bideoa.....	7
3.2.2. Presioak eragindako ultzerak prebenitzeko hitzaldia .....	7
3.3. Ebaluazio jarduerak.....	8
4. GOGOETAKO JARDUNA .....	11
5. BIBLIOGRAFIA .....	14
6. ERANSKINAK .....	17
1. ERANSKINA: Presioak eragindako ultzeren sailkapena kategorien arabera.....	17
2. ERANSKINA: Presioak eragindako ultzeren arrisku faktoreak .....	18
3. ERANSKINA: Braden Eskala .....	19
4. ERANSKINA: Arriskuaren kalifikazioa eta monitorizazio-maiztasuna Braden eskalaren bitartez .....	20
5. ERANSKINA: Presioak eragindako ultzeren triptikoa .....	20
6. ERANSKINA: Aldaketaren prozesuaren faseak.....	21
7. ERANSKINA: Gidaren ezarpenean eragina duten faktoreak.....	21
8. ERANSKINA: Presioak eragindako ultzerak prebenitzeko gomendioen artean Osakidetzak hautatutakoak .....	22
9. ERANSKINA: PREMA programa .....	23
10. ERANSKINA: Erorketak prebenitzeko heziketa bideoaren egitura .....	25
10.1. Kronograma.....	25
10.2. Gidoiaren eskema .....	25
10.3. Eskaleta.....	28
10.4. Gidoia .....	30

11. ERANSKINA: Presioak eragindako ultzeren Powert Point aurkezpena.....	35
12. ERANSKINA: Presioak eragindako ultzerak Kahoot.....	38
13. ERANSKINA: Ohe-oinean egindako datu-bilketaren erregistroa-ospitalizazioa .	41
14. ERANSKINA: Historia kliniko elektronikoaren datuak biltzeko orria-ospitalizazioa .....	43
15. ERANSKINA: Etxean datuak biltzeko erregistroa – lehen arreta maila .....	45
16. ERANSKINA: Historia kliniko elektronikoan datuak biltzeko orria – lehen arreta maila.....	47
17. ERANSKINA: Etxean datuak biltzeko erregistroa – etxeko ospitalizazioa .....	49
18. ERANSKINA: Historia kliniko elektronikoaren datuak biltzeko orria – etxeko ospitalizazioa.....	51
19. ERANSKINA: Ekintzen kronograma.....	53
20. ERANSKINA: Konfidentzialtasun orria .....	55

## **TAULEN AURKIBIDEA**

1. TAULA: 2014.urteko zerbitzu-erakundeen egoera.....	8
2. TAULA: 2019. urtean osasun zentroetan egindako presioak eragindako ultzeren azterketa .....	11



## **LABURDURAK**

**BPSO:** Best Practices Spotlight Organizations / Zaintzen Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentroak

**ESI:** Erakunde Sanitario Integratua

**NPUP:** National Pressure Ulcer Advisory Panel / Nazioarteko Presio Bidezko Ultzeren Aholku Batzordea

**PEU:** Presioak eragindako ultzerak

**PMGB:** Presioa maneiatzeko gainazal bereziak

**RNAO:** Registered Nurses Association of Ontario / Ontarioko Erizain Profesionalen Elkarte



## 1. SARRERA

Presioak eragindako ultzerak (PEU) azalean edota honen azpiko ehunetan aurkitzen diren kalteak dira, gehienetan hezurretako konkorreran azaltzen direnak, presio, iskemia edo indar tangenzialen edo zizailaduraren ondorioz sortuak (1,2).

Nazioarteko Presio Bidezko Ultzeren Aholku Batzordeak (National Pressure Ulcer Advisory Panel, NPUAP) lau kategorietan sailkatzen ditu PEUak (3) (ikusi 1. eranskina).

Mundu mailan ultzeren prebalentzia oso handia da, % 23 Norbegan, % 28,2 Suedian eta % 24,7 Italian. Espainia mailan ehunekoa % 7,8ra gutxitu arren (4), morbiditate eta hilkortasunarekin zerikusi nabarmena dute, batez ere pertsona helduetan. Hainbat ikerketetan ikusi da, helduen ospitalean, PEUak heriotza arrazoi nagusien artean kokatzen direla miokardioko infartua eta gaixotasun gaiztoen atzetik. Gainera, ospitalean egin zen ikerketa batean ikusi zen, PEU zuten pazienteek % 3,6ko probabilitate handiagoa zutela hurrengo 21 hilabeteetan hiltzeko (5). Hau ikusita, osasun arazo larri bat bezala kontsideratuta daude, batez ere oheratuak edo instituzionalizatuak dauden pertsonetan edo etxez-etxeko arreta jasotzen dutenetan. Osasun arazo larria kontsideratzeaz gain, lesio hauek kronifikatu daitezke, pazienteari eta haren familiari dependentsia handia sortuz. PEUen tratamenduak oso garestiak dira (1). Ultzera baten sendaketa batek, Osakidetzako osasun zentro batean egiten bada, 24 euroko gastua du eta 45 eurokoa erizaina etxera joaten bada. Gainera, PEUek ospitalizazioak ere luzarazten dituzte, egonaldiak eguneko 906 euro suposatzen dituelarik (6).

Horregatik, PEUak ez agertzeko oso garrantzitsua da prebentzioa, izan ere, hauen % 95a prebenitu daitezke frogatuta dagoelako erizaintza zainketa onak emanez eta prebentziorako programa global eta integratu bat aplikatuz. Horretarako, PEU pairatzeko arriskuan dauden pertsonen zaintzan esku hartzen duten agente guztien inplikazioa behar da (7).

Esan bezala, PEUak, faktore etiologikoengatik, presio, zizailadura eta bien konbinazioagatik ager daitezke (1,8). Hala ere, beste faktore batzuk ere kontuan hartu behar dira hauen prebentzioa sustatzeko. Barne faktoreak, pazientearen osasunarekin erlazionatutakoak eta kanpo faktoreak, haren ingurunearekin erlazionatutakoak, eta pazienteak edo zaintzaileak kontrolatzen dituenak (8) (ikusi 2. eranskina).

lido horretan, faktoreak zeintzuk diren aztertzeko pertsonaren balorazio integrala egin behar da. Balorazioak oinarrizko gaitasunak bere kabuz asetzeko ahalmena, azterketa fisiko bat eta egungo osasun-egoera barne hartzen ditu, azalatu daitezkeen gaixotasunak eta tratamendu farmakologikoa kontuan hartuta. Balorazioa sistematikoki egin behar da ingresuan edo etxeko lehen bisitan. Balorazio integrala diziiplina anitzeko talde baten ardura da, osasun profesionalek egin behar dutena (9). Horretarako eskala ezberdinak erabiltzen dira. PEUren arriskuaren balorazioa zein den zehazteko Braden eskala erabiltzen da (8, 9) (ikusi 3. eranskina). Lortutako informazioak hartu beharreko neurriak zehaztuko ditu (ikusi 4. eranskina). Garrantzitsua izango da azalaren zainketak egitea, pertsonak ahal duen neurrian jarduera eta ariketa egitea, presioa kontrolatzea, aldaketa posturalak egitea, presioa maneiatzeko gainazal bereziak erabiltzea, nutrizioa kontrolatzea eta osasun-hezkuntza eskaintzea (9) (ikusi 5. eranskina).

Osasun sailak Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zituen Legegintzaldirako lido Nagusi orokorretan, osasun sistemaren jardueraren ardatz nagusia pertsonak direla adierazten zuen. Horrez gain, Osakidetzarako Osasun Plana eta Berrikuntza eta Ikerketa Estrategiak garrantzitsuak diren beste informazio-iturri batzuk dira. Berrikuntza eta ikerketa erronkak, ebidentzian oinarritutako praktika klinikako gidak eta gomendioak ezartzen edota eguneratzen laguntzea du ekintza bezala (10).

Aintzat hartuta osasun sistemaren jardueran pertsonak ardatz nagusia direla (10), gizarte aurreratuetan, pazientearen segurtasuna osasun asistentzialaren elementu garrantzitsua da. Hain zuzen ere, XXI. mendean, herritarrek zilegi dela pentsatzen dute, eskainitako zerbitzuak babesturik egon beharko luketela eta ondorio negatiborik ez dutela izan beharrik. Hala ere, nahiz eta profesionalen kualifikazioa hobetu eta teknologiak aurrera egin, kontuan hartu beharra dago segurtasunarekin lotutako egoera horiek arrisku egoerak sor ditzaketela (11).

1999. urtean Estatu Batuetako institutu medikuak, To Err Is Human informean akats medikuengatik, urtean 98.000 heriotza zeudela frogatu zen; 15 urte igarota, Harvard-eko osasun publikoko departamentuak egindako ikerketak 400.000 heriotza zeudela azalatu zuen. Nahiz eta ahaleginak egin eta hobekuntzak ezarri, pazientearen segurtasuna indartu beharreko alderdia da oraindik. 2013-2016ko Osakidetza Pazientearen Segurtasunaren zazpigarren lerro estrategikoan (Jardunbide egokiak erizaintzako zaintza-lanetan) PEUak segurtasun arazo garrantzitsua direla azpimarratzen da (11).

Osakidetzak, osasun sistemaren ardatz nagusia pertsonak direla, akats medikuengatik heriotza kopuru altua dagoela, zazpigarren lerro estrategikoan PEUak segurtasun arazo handia suposatzen dutela eta PEUren % 95 prebenitu daitezketela ikusirik, Best Practices Spotlight Organizations (BPSO) edo Zainketan Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentroen proiektuan sartzea erabaki zuen. BPSO, Ontarioko Erizain Profesionalen Elkarteak (RNAO ingelesezko siglengatik, Registered Nurses Association of Ontario) hautatutako osasun-instituzio edo instituzio akademikoak dira, hiru urtez RNAOk garatutako Jardunbide Egokien Gidak ezartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartu dutenak (12).

RNAOk erizain eta ikertzaile talde bat batu zuen, tresna bat garatu eta hauen bidez praktika klinikako gidak ezartzeko, Jardunbide Egokien Gidak. Hauek, eremu kliniko espezifikoko batean gomendatutako jardunbide onenen adierazpenak biltzen dituzte, profesionalei praktikan jarraibideak emateko diseinatuak. Jardunbide Egokien Gidaliburuek ebidentzian oinarritutako zainketak jorratzen dituzte, profesionalek erabil ditzaten, zainketak orientatzeko eta pazienteen emaitzetan eragina izateko. Profesional bakoitzari dagokio eguneratuta egotea eta eskura dagoen ebidentziarik onena erabiltzen dela ziurtatzea, baina askotan zalantzak sortzen dira. Horregatik, Jardunbide Egokien Gidek profesionalek ematen dituzten zaintzak ebidentzia onena izatea ziurtatzen dute (13).

BPSO proiektua 2003. urtean jarri zen martxan eta geroztik Kanadatik mundu osora hedatu da. Gaur egun, 250 BPSO baino gehiago daude munduan zehar (12). Espainian, programa 2012. urtean jarri zen martxan Espainia – *Host* moduan (koordinazio zentroa) (14). *Host*-a BPSO programaren ezaugarri bat da, non RNAOk erakunde batekin akordio bat egiten duen, eta erakunde hori arduratzen den BPSO gainbegiratu eta izendatzeaz. BPSO *Host* programaren alderdi guztien arduraduna da. Berak hautatuko du zein erakunde sartzan den proiektuan, eta gainera RNAOri aurrerapenen berri emango dio. BPSO Espainia, Joanna Briggs-en Kolaborazio Internazionalaren parte da eta Osasun Zainketen ikerketa unitatean kokatzen da, "Instituto Carlos III"-n (INVESTEN-ISCIII). Gainera, 2018. urtean Euskadi, Balear Uharteak eta Asturias *Host Regional* izaten hasi ziren, Espainiaren barruan, eredia hedatzeko eta erkidego mailan BPSO programa garatzeko eta koordinatzeko. Gero, Andaluzia eta Kanariak elkartu ziren (12).

BPSOko parte izateko, hiru urtero deialdiak egoten dira interesa dutenek parte hartzeko. Hautatzen diren instituzioak Zainketan Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentroa izena hartzen du eta hiru urtez, gutxienez, RNAOren Jardunbide Egokien Gida Klinikoak ezarri, ebaluatu eta mantentzeko konpromisoa hartzen dute (14). Hiru urteak pasatzean,

Zainketan Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentro gisa izendatzen da, konpromisoa bi urtez luzatuz, gida berri bat ezarri edo aurrekoak instituzioan zehar hedatzen badira (12).

Gaur egun hiru kohorteetan banatzen da BPSO proiektua. Donostialdeako ESla bigarren kohortean aurkitzen da, 2015ean hautagai izan eta 2018an Zainketan Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentro gisa izendatu zena. Horretarako hiru gida ezarri zituen, “minaren balorazioa eta maneia”, “erorketen prebentzioa” eta “pazientean zentratutako atentzioa”. Hiru urte igaro ondoren “presioak eragindako ultzeren prebentzioa eta arriskuaren balorazioa” ezarri zuen konpromisoa bi urtez luzatu ahal izateko (12).

“Presioak eragindako ultzeren prebentzioa eta arriskuaren balorazioa” gidak, helduengan PEUren arriskua identifikatzen lagunduko die erizainei esparru guztietan. PEUak prebenitzeko hasierako esku-hartzeak zehazteko ere baliagarria izango zaie, bai eta I kategoriako PEUk maneiatzeko ere. Gidak aholku ezberdinak eskaintzen ditu formakuntzan dauden erizainei edota erizain profesionalei zuzenduak, PEUak identifikatzeko eta arriskua prebenitzeko prozedura onenak aplikatu ditzaten (15).

Proiektuaren helburua RNAO gidetan oinarritutako zaintza egokiak ezartzea, ebaluatzea, mantentzea eta sustatzea da erizaintzako edozein inguruetan, zainketa egokiak eskainiz pazientearengan eragin positiboak sortuz (12). Osakidetzan, programak aldaketa positiboak lortu ditu zainketetan eta emaitza klinikoetan eragina izan du. Gainera, aldaketan parte hartzen duten guztien parte-hartze aktiboa eta diziplina anitzeko taldea bultzatzen du (16).

## **2. HELBURUAK**

Lanaren helburu orokorra Osakidetzak gauzatzen duen proiektuan parte hartzea da. Gainera, helburu zehatz bezala honakoak aurkitzen dira:

- Proiektuaren inguruan egiten diren planifikazio eta gestioaren inguruko bileretan parte hartu.
- Difusio jarduerak gauzatu medio ezberdinak erabiliz.
- Programan dauden gai ezberdinen ikerketa eta ebaluazioa egin.

### 3. JARDUERAK ETA EMAITZAK

#### 3.1. Taldeko bilerak

Proiektuari hasiera emateko garrantzitsua da sustatzaileak gaiari kokatzea. Sustatzaileak erizain eta beste osasun profesionalak dira, ebidentzian oinarrituta bere erakundearen zaintzak hobetzeko prest daudenak. Berrikuntza eta aldaketaren parte dira, bere kideak mobilizatuz eta lagunduz (12). Hauek proiektuan kokatzeko, bi bilera gauzatu dira. Bilera hauen helburua, sustatzaileak gaiari kokatzea eta hauen zalantzak argitzea izan da.

**Lehenengo bilera** 2019ko abenduaren 18an egin zen, Donostia Unibertsitate Ospitalean. Bertan Javier Ortizek (BPSO proiektuaren liderra) proiektua aurkeztu zuen BPSO, RNAO, INVESTEN-ISCIII eta Joana Briggs-en definizioak azalduz. Gainera, Rosa Agirrek (zaintzen metodologiako erizain koordinatzaileak) metodologiaren, erregistroaren eta ebaluazioaren garrantziaz aritu zen. Bilera bukatutzat emateko, bideo bat aztertu zen. Bertan ospitale batean ekipoak duen garrantzia ikusi zen. Beraz, ospitalean proiektu bat aurrera eramateko diziplina anitzeko talde batek parte hartu behar du.

**Bigarren bilera**, berriz, 2020ko urtarrilaren 23an egin zen Donostia Unibertsitate Ospitalean. Bilera hau aldaketaren teoriarik eta honek duen eraginean bideratu zen. Proiektu bat aurrera eramateko ekipo baten beharra dago, baina beti aurkitzen dira erresistentziak eta aldaketarako zailtasunak. Horregatik, garrantzitsua izango da alde aurretik dauden oztopoak jorratzea. Gogoratu beharra dago, Jardunbide Egokien Gida ezartzeak aldaketa prozesu bat dakartzala. Gauzak egiteko modua aldatzea erronka bat izan daiteke. Horretarako, aldaketari buruzko teoria bat aplikatzeak, gidak ezartzeak duen eragina ulertzen lagundu dezake, bai eta estrategia onak hautatzen ere (13).

BPSO proiektuak Lewin-en aldaketaren teoriarekin lan egiten du. Teoria honek, aldaketaren hiru faseak identifikatzen ditu (13):

- Desizozte fasea: jendeak aldaketa beharrezkoa dela ulertu eta erosotasun fasetik irteteko prestatzen da. Gainera, aldaketarako alde positibo eta negatiboak eta barne-faktoreen (motibazioa) eta kanpo-faktoreen (epeak) eragina aztertzen ditu. Fase honek, etorkizunean egoera nolakoa izango denaren irudia erakusten laguntzen du eta inguru edota aldaketaren egoera ideala zein den ere islatuko du.

- Aldaketaren fasea: jendeak hasieran zituen ohiturak aldatu ditu, beraien ikuspuntua aldatuz. Fase hau zaila izaten da gehienetan, jendeak segurtasun eza eta beldurra azaleratzen baititu. Jendeak denbora behar du aldaketari buruz ikasteko eta hari buruz hausnartzeko.
- Berizozte fasea: aldaketak gauzatu eta egonkortasuna ezartzen denean gertatzen da. Jendea errutina berrietara egokitzen da. Askotan, egitura eta prozesuak behar dira, aldaketaren hasieran zeuden modu edo errutinetara ez itzultzeko.

Jardunbide Egokien Gida ezartzerakoan, aldaketa prozesua ulertzeko Schein-ek (1996) desizozte fasea analizatu eta hiru fase zituela ikusi zuen: ezeztapena, ikaskuntzaren antsietatea eta birdefinizio kognitiboa (ikusi 6. eranskina). Garrantzitsua da sentimendu eta erreakzioak ulertzea aldaketaren aurrean, portaera normalizatzeko eta laguntza-estrategiak eskaintzeko. Gainera, gidaren ezarpenean eragiten duten faktoreak, batzuetan, erraztatzaileak izan daitezke; beste batzuetan, ordea, oztopoak (ikusi 7. eranskina). Beraz, garrantzitsua izango da faktoreak aztertzea gida modu egokian ezartzeko (13).

**Hirugarren bileran**, sustatzaile bakoitzak bere gaia jorratu zuen. Bilera 2020ko martxoaren 10ean egin zen bideo-dei bitartez eta kronograman zehazten diren hainbat gai jorratu ziren PEUren inguruan.

BPSO proiektuaren bitartez, PEUak saihesteko Jardunbide Egokien Gidak proposatzen dituen gomendioak erreparatu ziren. Osakidetzak, proiektuak proposatzen dituen gomendioetatik, hainbat aukeratu ditu horien inguruan hausnarketa sakon bat egiteko (17) (ikusi 8. eranskina).

Hauen hausnarketa egiteko hiru bilera egitea pentsatua zegoen, otsaila, maiatza eta azaroan. Lehenengo bileran, lehenengo 3 gomendioak erreparatu eta sakonduko ziren eta bigarreanean berriz, lehenengo 3 gomendioetan arazorik dagoen aztertu eta 4. eta 5. gomendioak erreparatu eta sakonduko ziren. Gainera, ebaluazioa egina egongoenez, osasun profesionalei honen berri emango zitzaien eta konponbideak eta hobekuntza arloak proposatuko ziren. Azkeneko bileran aurreko gomendioak erreparatu eta sakondu eta azkenekoa abian jarriko zen (17).

Gainera, PEUak prebenitzeko eta zaintzeko gainazal berezien kudeaketa optimizatzeko prozesu bat martxan jarri zen. PEUren presioaren eragina minimizatzeko mobilizazioa, jarrera-aldaketak, presioaren kontrako babes lokala eta presioa maneiatzeko gainazal



bereziak (PMGB) kontuan hartzen dira (18). PMGBak gailu batzuk dira, azal baten gainean jartzen direnak (aulki, ohe) larruazaleko presioa gutxitzeko edo arintzeko. Material osagarria da, beraz, aurretik zehaztutako jarduerak (mobilizazioa, jarrera-aldaketak...) ez dituzte ordezkaten (18). Horretarako, material hori ospitalean kudeatzeko, PREMA programa jarri zen martxan (ikusi 9. eranskina). Programaren bidez PMGB materiala eskatzen da eguneko edozein ordutan, pazienteak babestuak egoteko uneoro (19).

## 3.2. Difusio jarduerak

### 3.2.1. Erorketak prebenitzeko bideoa

Pertsonak hezitzeko ezinbestekoa da mezuak era zehatzean eta dinamikoan ematea. Proiektu honen barruan erorketen prebentzioan hobetu behar diren alderdietan zentratutako bideo bat gauzatzea erabaki da. Bideoa hitzaldi batean erakutsiko da, gainbegiratzailerei zuzendua egongo dena, hauek dauden plantan zehar informazioa transmititu dezaten. Bertan agertuko diren bi gai nagusiak balorazioa eta informatzea izango dira, horien falta ikusi baita.

Horretarako, 2020ko urtarrilaren 31an, Rosa Agirre (erizain adjuntua), Javier Ortiz (BPSO proiektuaren liderra), Daniela Moreno (segurtasun klinikoko erizaina), hirugarren mailako bi ikasle eta BPSO proiektuan parte hartzen duten bi ikasle elkartu ziren Donostia Unibertsitate Ospitalean. Bideoaren egituraren inguruan hitz egin zen bertan. Balorazioan eta informazioan hutsune bat dagoela ikusi zen. Izan ere, batzuetan, Osanaia (Osakidetzako zainketen kudeaketarentzako programa) betetzean egin beharreko lana hori dela pentsatuz, pazientea bigarren mailan uzten da. Horretarako, heziketa bideo bat diseinatu zen, otsaila eta martxoan zehar (ikusi 10. eranskina). Bertan, pazientearen balorazio integral bat gaizki egina eta pazienteari informazioa eskasa transmititzea islatu nahi izan zen, ondoren, aurkezpena egiterako orduan hutsune horietan enfokatzeko.

### 3.2.2. Presioak eragindako ultzerak prebenitzeko hitzaldia

Oheratuak nahiz immobilizatuak dauden pazienteak izan ditzaketen konplikazioen artean, PEUak dira ondoen saihestu eta trata daitezkeenak. Horrenbestez, PEUen prebentzioa, erizainek emandako zainketekin zuzenki lotuta dago. Horretarako, Donostiako Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko erizaintzako ikasleei, bideo baten bitartez, hitzaldi bat emango zaie PEUren prebentzioak duen garrantziaz jabetzeko.

Difusio honetarako, Power Point aurkezpena (ikusi 11. eranskina) eta Kahoot (ikusi 12. eranskina) plataformaren bitartez ebaluazio galdetegi bat egingo da azalduko den gaiaren inguruan.

### 3.3. Ebaluazio jarduerak

PEUak prebenitzeak, pazienteak babestu eta asistentzia sanitarioaren kosteak murrizten ditu. 2013-2016ko Osakidetzako Pazientearen Segurtasunaren zazpigarren lerro estrategikoak helburu batzuk finkatu ditu (11):

- Zerbitzu-erakundeetan dauden PEUen prebalentziaren eta intzidentziaren benetako ezagutzaren alde egiten duten estrategien garapena indartzea.
- Osanaia, erizaintzako zainketen aplikazio informatikoaren garapenean kolaboratzea, inplikaturiko profesionalei lerro horretako segurtasuneko adierazleen kudeaketa errazteko.
- PEUen prebentzioa eta zainketen protokoloa berrikusteaz eta eguneratzeaz arduratzen den lan-talde korporatiboan parte-hartzea.
- Osakidetzarako irizpide komunak eta homogeneoak dituen ikerketa epidemiologikoko eredu bat garatzea.

Horretarako, Osakidetzak PEU-UPP Adi! programa garatu zuen. Ekimenaren helburua jardunbide egokien balio bat ematea da, kontuan hartuz erakunde bakoitzak zein praktika jarri dituen martxan PEUen gestioaren inguruan. Gero, praktika hauek Osakidetzara guztian zehar zabaltzeko. Hori dela eta, PEU-UPP Adi!-k, 2014.urtean, erakunde bakoitzari, PEUen kudeaketan ezarri zituzten eta erabilitako jardunbide egokien berri izateko galdera sorta bat bidali zien. Galdera sorta 21 erakundeek jaso zuten, hala ere, 16k erantzun zuten eta honako emaitzak lortu ziren (20) (ikusi 1. taula):

1. Taula: 2014.urteko zerbitzu-erakundearen egoera

ZERBITZU-ERAKUNDEEN EGUNGO EGOERA	
<b>Politika eta estrategiak</b>	
PEUen erreferentea/arduraduna	10/21
Eremu/unitate bakoitzeko erreferentea	8/21
PEUen talde espezifikoak	8/21
PEUei lotutako ekimenak garatu	8/21
Protokolo korporatiboa hedatzeko neurriak ezarri	14/21

<b>Ebaluazio-prozesuak</b>	
PEUren prebentzio eta tratamenduaren protokolo korporatiboaren ezagutza edo aplikazioa ebaluatu	6/21
PEUren intzidentzia eta prebalentzia ebaluazioa sistematizatu	11/21
Aitortu gabeko ultzeren proportzioaren eboluzioa	9/21
Azterlanean emaitzak komunikatu prozesu asistentzian inplikaturiko pertsoneri	10/21
Emaitza onak lortu dituztenei aitortzeko sistematika bat ezarri	4/21
Kudeaketan hobekuntza inplikaturikoei aitormena	5/21
PEUak prebenitzeko prestakuntza eskaini	13/21
PEUen arriskua baloratzeko prestakuntza eskaini	12/21
<b>ARRISKUEN BALORAZIOA. BALIOETSITAKO TRESNEN BIDEZ</b>	
PEUen arriskuaren balorazioa egin dela ebaluatzeko sistematika	10/21
<b>ZAINKETEN OPTIMIZAZIOA</b>	
PEUak prebenitzeko eta zainketarako kudeaketa optimizatzeko prozedura	9/21
PEU arrisku handia duten pazienteen nutrizioa eta hidratazioa maneiatzeko prozedura	1/21
Kanpo laguntzako egitura	9/21
<b>ZAINKETEN KOORDINAZIOA</b>	
Zainketen txostenen bidez beste esparru asistentzialesi emandako PEU arriskuaren eta prebentzioaren balorazioaren gaineko informazioa ebaluatzeko sistematika bat ezarri	5/21
Familiartekoak edota zaintzaileak PEUen prebentzian eta zainketan inplikatzeko estrategiak garatu	4/21

*Iturria: (20).*

Gainera, 2016.urtean PEU-UPP Adi! programak dokumentu bat garatu zuen, ospitale-esparruan eta etxeko esparruan, PEUen arazoaren magnitudea eta larritasuna, eta PEUen kontrako gertaera prebenitzeko eta tratatzeko jardunbide egokien eta protokoloen jarraipen-maila ebaluatzeko helburuarekin (21).

Ospitale esparruan, prebalentzia urtero aztertuko da pazienteen zuzenean (ikusi 13. eranskina) eta erizaintzako erregistroak behatuz (ikusi 14. eranskina), eta intzidentzia, berriz, gutxienez lau hilekoan behin Osanaiaren bidez. Prebalentzia azterlana, akutu,

azpiakutu eta kritikoen unitate guztietan egingo zaie ingresatutako paziente guztiei. Hainbat paziente ikerketatik kanpo geldituko dira, horien artean (21):

- Hitzezko baimena ematen ez dutenak.
- Ebaluatzean, unitatetik kanpo daudenak.
- Hilzorian dauden pazienteak.
- 48 ordu baino gutxiago ingresatuak daramatenak.
- Obstetria eta erdiberrietako unitateak, psikiatriako unitatea, egun bat baino gutxiago irauten duten egonaldiak, eguneko ospitaleak eta pediatriako unitateak.

PEUen maneiu klinikoan adituak diren erizain talde batek egingo du ebaluazio elkarrizketa, balorazioa eta pazientearen miaketa sakon bat eginez. Azterlana egiten den data ez da abisatuko unitatean (21).

Lehen mailako arretan, berriz, etxeko paziente kronikoei prebalentzia azterlana urtero egingo zaie zuzenean (ikusi 15. eranskina) eta erizaintzako erregistroak behatuz (ikusi 16. eranskina), eta intzidentzia, berriz, hiru hilero Osanaia ebaluatuz. Ikerketan baztertuak geldituko dira baimena ematen ez dutenak eta hilzorian daudenak. 3 unitate ezberdinetan egingo da azterlana. Osasun zentro bakoitzaren barruan, 3 kupo aztertuko dira eta kupo bakoitzeko 3 paziente. Beraz, guztira, 27 pazienteei egingo zaie azterketa ausaz. Azterketa egiten duen erizainak 6 hilabeteko esperientzia minimoa izango du. Etxeetara joan baino lehen telefonoz deituko dio pazienteari edo haren zaintzaileari, baimena eskatzeko eta gero etxean egingo da azterlana (21).

Azkenik, etxeko ospitalizazioan artatutako pazienteei egingo zaie azterlana, zuzenean (ikusi 17. eranskina) eta erregistroen (ikusi 18. eranskina) bidez. Prebalentzia urtero neurtuko da, intzidentzia, berriz, hiru hilero. Baztertuak geldituko dira, baimena ematen ez dutenak, hilzorian daudenak, obstetriako pazienteak eta erdiberriak eta pediatriako pazienteak. Azterlana honako hauei egingo zaie gutxienez, ausaz aukeratuak (21):

- Etxeko ospitalizazioan dauden 0-30 urte bitarteko pazienteen errolda duten erakundeak: 8.
- Etxeko ospitalizazioan dauden 31-60 bitarteko pazienteen errolda duten erakundeak: 14.
- Etxeko ospitalizazioan dauden 61 urtetik gora dituzten pazienteen errolda duten erakundeak: 20.

Kasu hauetan ere, azterlana ausaz egingo da eta talde ebaluatzaileak paziente edo haren zaintzaileari deituko dio etxera joan baino lehen baimena eskatzeko (21).

2019. urtean Groseko, Egiako, Bidebietako eta Pasaia San Pedroko lehen arreta mailan egin zen ikerketa, etxeko paziente kronikoetan eta emaitza hauek lortu ziren (2. taula). Bertan ikusi zen, osasun zentro guztiek ez zutela PEUK izateko arriskua identifikatua Braden eskalaren bidez; PEU izateko arriskua zuten pazienteek eta PEU zutenek ez zutela erizaintzako balorazioa eguneratua historia klinikoan; eta Osanaian PEUK ez zeudela erregistratuak edo erregistratuak zeudenen kasuetan, batzuetan ez zela erregistro egokia (22).

2. Taula: 2019. urtean osasun zentroetan egindako presioak eragindako ultzeren azterketa

RESULTADOS diciembre 2017 (basal) / febrero – diciembre 2019 Crónicos domiciliarios (CD)								
	C. S. GROS		C. S. EGIA		C.S. BIDEBIETA		C.S. PASAI SAN PEDRO	
	2017	2019	2017	2019	2017	2019	2017	2019
Nº CD evaluados	57	631	33	268	14	113	14	89
% CD con Identificación Riesgo UPP	32%	54%	36%	46%	29%	60%	23%	39%
% CD Revaloración Riesgo UPP	16%	69%	21%	44%	14%	39%	8%	26%
CD con Riesgo UPP	45%	81%	18%	54%	21%	50%	14%	28%
CD con UPP Previas	7%	26%	42%	38%	0%	8%	¿?	31%
CD con UPP proceso cuidado	1,75%	14,42%	0%	11,94%	0%	1,77%	¿?	5,62%
Categoría UPP	I,II,III	I,II,III, IV	I,II,III	I,II,III	---	I,II	I,II	I,II

*Iturria: (22).*

Atal honekin amaitzeko, egin diren ekintza guztien informazio zehatzagoa (ordua, partaideak..), 19.eranskinean ikusi daitezke.

#### 4. GOGOETAKO JARDUNA

Gradu amaierako lana Osakidetzarekin batera egiteak, ospitalean dauden beste eremu batzuk ezagutzeko aukera emango zidala pentsatu nuen. Proiektuaren parte izaten eta

osasun profesional desberdinekin gai baten inguruan ospitalean dagoen egoera sakontzen, ezagutza desberdinak bereganatuko nituela uste nuen, erizaintzako graduan zehar eskuratu ezin izan ditudanak. Horregatik, proiektuan parte hartzea pentsatu nuen.

Hasiera batean, proiektuak helburu batzuk zituen, horien artean difusio jarduerak gauzatzea eta gai ezberdinen inguruan ikerketa eta ebaluazioa egitea. Covid-19ak eragindako pandemiagatik, ordea, proiektuan aldaketak gertatu dira. Ondorioz, proiektuaren helburuak garatzerako orduan oztopoak egon badira ere, ahal izan den neurrian, jarduera desberdinak gauzatu ditut eskuragarri nituen baliabideekin.

Bideo-dei bitartez, Osakidetzak hautatu dituen PEUk gutxitzeko Jardunbide Egokien Gidak proposatzen dituen gomendioak erreparasatu dira. Nire ustez, gomendio horien artean gidaren 4.2. gomendioa faltako litzateke. Gomendioak honako hau dio: zentro batetik bestera doazen pazienteen kasuan, honako informazio hau transmititu behar da:

- Identifikatutako arrisku-faktoreak.
- Presio-puntuaren xehetasunak eta larruazalaren egoera alta eman aurretik.
- Pazienteak behar duen ohe edo koltxoi mota.
- Pazienteak behar duen eserleku mota.
- Orbandutako ultzeren xehetasunak.
- Dauden ultzeren kategoria, kokapena eta tamaina.
- Ultzeren historiala, aurreko tratamenduak eta erabilitako produktuak.
- Erabiltzen ari den apositu mota eta aldatze maiztasuna.
- Larruazala zaintzeko produktuen kontrako erreakzioak.
- Laborategiko proba aipagarrien emaitzen laburpena.
- Nutrizio-laguntza jarraituaren beharra.

Hau guztia, Osanaia programan islatu daiteke, horrela, beste osasun profesional batek PEU ikustean haren eboluzioaren informazioa bereganatu dezake, batzuetan horren hutsunea ikusi baitut. Izan ere, haien agerpen-data edo tratamenduaren informazioa falta baita. Honek, PEUren tratamenduaren jarraipen egokian eragozpenak sortu ditzake. Beraz, beharrezkoa ikusten dut gomendio honetan arreta jartzea.

Ezohiko egoera honengatik, aurten egingo den ebaluazioan parte hartu ezin izan dudanez, aurreko urteetako ebaluazioak ikertu ditut. Horrela, 2014. urtean erakundeei bidali zitzaien galdetegiko erantzunei erreparaturaz, hasiera batean bost erakundek ez zuten parte hartu. Horrek, oraindik ere, PEUren inguruan kontzientzia falta dagoela pentsatuarazten dit. Gainera, langileek emaitza onak lortzen dituztenean erakunde

gutxik aitortzen diete egindako lana. Nire ustez, osasun profesionalak motibatzea garrantzitsua da eraginkorragoak izateko eta gogo handiagoz lana egiteko. Horretarako motibazio estrategien erabilpena nabarmenduko nuke, horien artean, lorpenak azpimarratzea.

Pertsonalki, proiektuan parte hartzearen esperientzia aberasgarria egin zait. Alde batetik, PEUren inguruko ezagutzak handitzeko aukera eman dit, baita gaur egun PEUren egoera zein den ulertzen lagundu. Bestetik, talde lanak suposatzen duen esfortzua eta dinamika ulertzeko lagungarria egin zait, horrelako proiektu batean parte hartzen nuen lehenengo aldia izan baita.

Bukatzeko, azpimarratu behar dut, erizainen lana ezinbestekoa dela PEUen prebalentzia gutxitzeko, izan ere, hauen % 95a prebenigarria da eta horretan paper garrantzitsua jokatzen dugu. Ondorioz, BPSO programak jardunbide egokiak erabiliz, ebidentzia maila altua duten zainketak eskaintzen laguntzen du, horrela PEUren prebalentzia gutxituz.

Izan ditudan zailtasun guztiekin ere, BPSO motako gradu amaierako lana gomendatuko nuke hurrengo urteetako ikasleei, izan ere, ospitaleko beste eremu batzuk ezagutzeko aukera ematen dizu eta gainera, lana era dinamikoan egitea ahalbidetzen dizu, beste ikasle eta profesional batzuekin kezkek partekatzen eta ahal den neurrian zure ekarpena egiten ospitalean gaiaren inguruan lanean dauden osasun profesionalei.

## 5. BIBLIOGRAFIA

1. Teixeira J, Nogueira D, Souza GC, Oliveira L, De Oliveira R. Riesgo de aparición y prevalencia de lesión por presión en atención primaria. Gerokomos [Internet] 2019 [sartze-data: 2020/1/16]; 30(2): [93-97]. Erabilgarri: <http://scielo.isciii.es/pdf/geroko/v30n2/1134-928X-geroko-30-02-93.pdf>
2. Barón MM, Benitez MM, Caparrós A, Escarvajal ME, Martín MT, Moh Y et al. Guía para la Prevención y Manejo de las UPP y Heridas Crónica. Instituto Nacional de Gestión Sanitaria, Servicio de Recursos Documentales y Apoyo Institucional [Internet] 2015 [sartze-data: 2020/02/05]. Erabilgarri: [https://gneaupp-1fb3.kxcdn.com/wp-content/uploads/2015/10/Guia\\_Prevencion\\_UPP.pdf](https://gneaupp-1fb3.kxcdn.com/wp-content/uploads/2015/10/Guia_Prevencion_UPP.pdf)
3. National Pressure Ulcer Advisory Panel. Pressure injury and stages. NPUAP [Internet] 2016 [sartze-data: 2020/03/19]. Erabilgarri: <https://cdn.ymaws.com/npiap.com/resource/resmgr/NPIAP-Staging-Poster.pdf>
4. Pancorbo PL, García FP, Pérez C, Soldevilla JJ. Prevalencia de lesiones por presión y otras lesiones cutáneas relacionadas con la dependencia en población adulta en hospitales españoles: resultados del 5º Estudio Nacional de 2017. Gerokomos [Internet] 2019 [sartze-data: 2020/01/16]; 30(2): [76-86]. Erabilgarri: <http://scielo.isciii.es/pdf/geroko/v30n2/1134-928X-geroko-30-02-76.pdf>
5. Samaniego MJ, Martínez MJ. Impacto de las úlceras por presión en la mortalidad. Enfermería Dermatológica [Internet] 2016 [sartze-data: 2020/01/16]; 10(27): [59-61]. Erabilgarri: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5472697>
6. Osakidetza. Tarifas para facturación de servicios sanitarios y docentes de osakidetza para el año 2019. [Internet]. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2019 [sartze-data: 2020/01/16]. Erabilgarri: [https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_servic\\_para\\_empresas/es\\_def/adjuntos/tarifas\\_2019.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_servic_para_empresas/es_def/adjuntos/tarifas_2019.pdf)
7. Blanco RM, López E, Quesada C, García MR. Guía de recomendaciones basadas en la evidencia en prevención y tratamiento de las úlceras por presión en adultos [Internet]. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2015 [sartze-data: 2020/01/16]. Erabilgarri: [https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_publicaciones/es\\_publicaciones/es\\_publicaciones/3\\_guia\\_recomendaciones\\_ulceras.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/es_publicaciones/es_publicaciones/3_guia_recomendaciones_ulceras.pdf)



8. Blanco RM, López E, Quesada C. Guía de actuación para la prevención y cuidados de las úlceras por presión. [Internet]. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2017 [sartze-data: 2020/01/20]. Erabilgarri: [https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_publicaciones/es\\_publicos/adjuntos/enfermeria/UPP\\_es.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/es_publicos/adjuntos/enfermeria/UPP_es.pdf)
9. Adrover M, Cardona J, Fernández JM, Fullana A, Gálmes S, Garcia MD et al. Prevención y tratamiento de las úlceras por presión. Servicio de Salud de las Islas Baleares. [Internet] 2018 [sartze-data: 2020/01/23]. Erabilgarri: <https://ulcerasfora.sergas.gal/Informacion/Documents/233/GUIA%20UPP%20Baleares%202018.pdf>
10. Osakidetza. Osakidetzaren erronkak eta proiektu estrategikoak 2017-2020. [Internet]. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2017 [sartze-data: 2020/02/04]. Erabilgarri: [https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen\\_gob\\_planes/eu\\_def/adjuntos/PE\\_2017\\_2020\\_web\\_EUS.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen_gob_planes/eu_def/adjuntos/PE_2017_2020_web_EUS.pdf)
11. Osakidetza. Estrategia de seguridad del paciente 2020. [Internet]. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2018 [sartze-data: 2020/02/04]. Erabilgarri: [https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_trbg\\_planes\\_programas/es\\_def/adjuntos/ESTRATEGIA\\_SEGURIDAD\\_DEL\\_PACIENTE\\_20\\_20.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/es_def/adjuntos/ESTRATEGIA_SEGURIDAD_DEL_PACIENTE_20_20.pdf)
12. Investén-isciii. Centros Comprometidos con la Excelencia en Cuidados [sede Web]. Madrid: investén-isciii [eguneratze data: 2019; sartze- data: 2019/11/25]. Erabilgarri: <https://www.evidenciaencuidados.es/bpsos/index.php>
13. Davies B, Rothwell D, Zarins B, Morris G, Hogg P, Santos J, et al. Herramienta de implantación de buenas prácticas [Internet]. 2ª ed. Madrid: investén-isciii; 2012 [sartze-data: 2020/01/17]. Erabilgarri: [https://rnao.ca/sites/rnao-ca/files/Toolkit\\_en15.pdf](https://rnao.ca/sites/rnao-ca/files/Toolkit_en15.pdf)
14. Centro español para los cuidados de salud basados en la evidencia (CECBE). Evidencia en cuidados [sede Web]. Madrid: CECBE [eguneratze data: 2019; sartze-data: 2019/12/23]. Erabilgarri: <http://www.evidenciaencuidados.es/es/index.php>
15. RNAO. Valoración del riesgo y prevención de las úlceras por presión [Internet]. Madrid: investén-isciii; 2011 [sartze-data: 2019/12/09]. Erabilgarri: [https://evidenciaencuidados.es/bpsos/wp-content/uploads/2020/01/D0025\\_PreencionUlcerasPresion\\_2011.pdf](https://evidenciaencuidados.es/bpsos/wp-content/uploads/2020/01/D0025_PreencionUlcerasPresion_2011.pdf)

16. Osakidetza. Investigación Enfermera, buscar e interpretar la evidencia. Centros comprometidos con la Excelencia en Cuidados [Intranet]. Donostia: Osakidetza; 2015 [sartze-data: 2020/02/24].

17. OSI Donostialdea. Guía: valoración del riesgo y prevención de las úlceras por presión [Intranet]. Donostia: Osakidetza [sartze-data: 2020/03/10].

18. Osakidetza. Presioak eragindako ultzeren prebentzioa egiteko eta zaintzeko material berrien kudeaketa optimizatzeko prozedura- edo zirkuitu-eredua [Intranet]. PEU-UPP Adi!; 2015 [sartze-data: 2020/03/10].

19. OSI Donostialdea. Solicitudes / Devoluciones y otras gestiones de SEMP (Superficie Especial para el Manejo de la Presión (tipo alternante / dinámica / motor) [Intranet]. Donostia: Osakidetza; 2019 [sartze-data: 2020/03/10].





20. Osakidetza. Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan Presioak Eragindako Ultzeren kudeaketan Aurrera egiteko Ekimena. Osasun Publikoko eta Pazientearen Segurtasuneko Programen Koordinazioa [Intranet]. PEU-UPP Adi!; 2014 [sartze-data: 2020/03/10].

21. Osakidetza. Presioak eragindako ultzerak ebaluatzeko metodología [Intranet]. PEU-UPP Adi!; 2016 [sartze-data: 2020/03/10].

22. OSI Donostialdea. Proceso enfermero: base del cuidado centrado en la persona [Intranet]. Donostia: Osakidetza; 2019 [sartze-data: 2020/03/10].

## 6. ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA: Presioak eragindako ultzeren sailkapena kategorien arabera

DEFINIZIOA	IRUDIA
<p><b>1. kategoria:</b> osorik dagoen azalean ikus daitekeen alterazioa. Presioa egitean zurbiltzen ez den eritema duena. Larruazal ilunetan gorriak, urdinak edo moreak izan daitezkeenak. Larruazalaren tenperaturaren (hotz edo beroa), ehunaren trinkotasunean (edema, indurazioa) edota sentrazioan (mina, erresumina) aldaketak gerta daitezke.</p>	
<p><b>2. kategoria:</b> dermisa kaltetuta ikusten da. Zauriaren ohandza arrosa edo gorria izan daiteke, hezea egon daiteke eta batzuetan serumenez beteriko baba edo fliktena bezala ere ager daitekeena. Ehun sakonak ez dira ikusgarriak edo esfazeloak ez dira agertzen. Kategoria honetan ez dira deskribatuko hezetasunagatik sortutako kalteak, itsasgarriengatik sortutako lesioak, inkontinentziarekin lotutako dermatitisa edo zauri traumatikoak (erredurak, urradurak...).</p>	
<p><b>3. kategoria:</b> larruazal azpiko ehuna (hipodermisa) ikusten da. Faszia, muskulua, tendoia, lotailua, kartilagoa edo hezurra ez daude agerian, baina kabitazioak edo tunelazioak ager daitezke. Esfazeloak ager daitezke ere. Sakonera zauria dagoen kokapen anatomikoaren arabera aldatu daiteke, ehun adiposoaren arabera.</p>	
<p><b>4. kategoria:</b> azala eta ehunen galera osoa geratzen da. Faszia, muskulu, tendoi, lotailu, kartilago edo hezurrak agerian daude. Kabitazioak eta tunelazioak maiz agertzen dira. Sakonera kokaleku anatomikoaren arabera aldatzen da. Esfazeloak edo eskarak ager daitezke.</p>	

## 2. ERANSKINA: Presioak eragindako ultzeren arrisku faktoreak

BARNEKO FAKTOREAK	KANPOKO FAKTOREAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Adina</li> <li>- Mugikortasun mugatua</li> <li>- Medikazioa: immunoezabatzaileak, benzodiazepinak, kortikoideak, lasaigarriak, inotropikoak</li> <li>- Oxigenoa garraiatzeko nahasmenduak: nahasmendu baskular periferikoak, estasi benosoa, bihotz-biriketako nahasmendua</li> <li>- Aldaketa kognitiboak: desorientatuak, nahasiak</li> <li>- Urritasun sentSORIALA eta motorra</li> <li>- Sentipen/motor galera: paresia/paralisia, minaren sentipena galtzea</li> <li>- Espastizitatea/kontrakturak</li> <li>- Aldaketa nutrizioanalak eta metabolikoak</li> <li>- Inkontinentzia: gorozkiena, genuarena, mistoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezetasuna</li> <li>- Igurzketa</li> <li>- Euste mekanikoa</li> <li>- Prozesuagatiko gelditasuna (desegonkortasun hemodinamikoa..)</li> <li>- Gailu sanitarioen erabilera</li> <li>- Ingurune sozial arriskutsua: egoera sozioekonomikoa, laguntza sanitarioak eta sozialak urruti izatea</li> <li>- Zaintzailearen edo profesionalaren prestakuntza desegokia</li> <li>- PMGB ez edo PMGB desegokia</li> <li>- Ohitura toxikoak: tabakismoa, alkohola</li> </ul>

*Iturria: (8).*

### 3. ERANSKINA: Braden Eskala

BRADEN ESKALA				
<b>PERTZEPZIO SENSORIALA</b> Erreakzionatzeko gaitasuna, presioarekin ikustekoa duen min arina dagoenean	<b>1. Erabat mugatua</b> Kontzientzia-maila gutxitua izanik edo lasaigarria emanda egonik, pazienteak ez du erreakziorik minaren estimuluen aurrean (kexatzea, dardara egitea edo heltzea), edo mina sentitzeko gaitasun mugatua du gorputzaren gehiengan.	<b>2. Oso mugatua</b> Estimulu mingarriak direnean bakarrik erreakzionatzen du. Ezin du adierazi bere ezinegona, ez bada intzrika edo inarrosita, edo defizit sensorial bat du mina sumatzeko gaitasuna mugatzen diona gorputz-erdian baino gehiagoan.	<b>3. Zertxobait mugatua</b> Hitzezko aginduei erantzuten die, baina ez dezake beti komunikatu mina duela edo jarreraz aldatzeko premia duela, edo zailtasun sensorialen bat du, mina edo ezinegona sentitzeko gaitasuna mugatzen diona behintzat gorputz-adarretako batean.	<b>4. Mugapenik gabea</b> Ahozko aginduei erantzuten die. Ez du adierazteko gaitasuna edo mina edo ezinegona sumatzeko gaitasuna mugatzen dion defizit sensorialik.
<b>HEZETASUNAREN ERAGINA</b> Hezetasunaren eragin-maila larrazalean	<b>1. Hezea dago beti</b> Larrazala beti dago hezea: izerdiagatik, gernuagatik... Hezetasuna sumatzen da pazientea mugitzen edo biratzen den bakoitzean.	<b>2. Askotan hezea</b> Larrazala maiz dago hezea, baina ez beti. Oheko arropa aldatu beharra da txanda bakoitzean behin gutxienez.	<b>3. Noizbehinka hezea</b> Larrazala tartean behin hezea dago, eta oheko arropa maizago aldatu behar zaio, gutxi-gorabehera egunean behin.	<b>4. Gutxitan hezea</b> Larrazala oro har lehorra dago. Oheko arropa ezarrita dagoen ohiko maiztasunarekin aldatuko da.
<b>JARDUERA</b> Jarduera fisikoaren maila	<b>1. Oheratuta</b> Erabat oheratuta dagoen pazientea	<b>2. Aulkian</b> Ibili ezin den edo oso gutxi ibil daitekeen pazientea. Ezin du bere burua jasan eta/edo laguntza behar du aulki batera edo gorpil-aulki batera igarotzeko.	<b>3. Noizbehinka ibiltzen da</b> Noizbehinka ibiltzen da laguntzarekin edo laguntzarik gabe egunean zehar, baina oso distantzia laburrak egiteko. Eguneko ordu gehienak ohean edo aulki batean ematen ditu.	<b>4. Maiz ibiltzen da</b> Egunean bi aldiz behintzat gelatik kanpo ibiltzen da, eta gela barruan, gutxienez bi orduz paseorako orduetan.
<b>MUGIKORTASUNA</b> Gorputzaren jarrera aldatzeko eta kontrolatzeko gaitasuna	<b>1. Geldi-geldirik</b> Laguntzarik gabe ezin du aldatu gorputzaren edo gorputz-adarren baten posizioa.	<b>2. Oso mugatua</b> Noizbehinka, zertxobait aldatzen du gorputz-jarrera edo gorputz-adarrena, baina ez da gai bere gisa posizio-aldaketa sarri edo modu adierazgarrian egiteko.	<b>3. Zertxobait mugatua</b> Aldaketa arinak egiten ditu maiz gorputzaren edo gorputz-adarren posizioa aldatzeko, bere kasa.	<b>4. Mugapenik gabea</b> Maiz egiten ditu posizio-aldaketak laguntzarik gabe
<b>NUTRIZIOA</b> Elikagaia hartzeko ohiko patroia	<b>1. Oso kaxkarra</b> Ez du inoiz otorduan ematen zaion gutzia jaten. Arraroa da eskaintzen zaion edozein elikagairen heren bat baino gehiago jatea. Eguneroko bi otordu proteinadun (haragia edo esnekiak) edo gutxiago jaten ditu. Likido gutxi edaten du. Ez du hartzen gehigarri likidorik, edo baraurik eta/edo dieta likidoa edo seruma hartzen egon da bost egunetik gora.	<b>2. Segur aski, desegokia</b> Gubitana jaten du otordu bat oso-oso, eta, oro har, ematen diotenaren erdia bakarrik jaten du. Eguneroko hiru aldiz baino ez du hartzen proteina, haragia edo esnekiak janda. Tartean behin, gehigarri dietetiko bat hartzen du, edo dieta likido baten edo zunda nasogastriko baten kopuru optimoa baino gutxiago hartzen du.	<b>3. Egokia</b> Otordu gehien erdia baino gehiago hartzen du. Guztira lau otordu proteiko hartzen ditu egunean (haragia edo esnekiak). Noizean behin, uko egiten dio janariari baina gehigarri dietetiko bat hartuko du eskaintzen badiote, edo zunda nasogastriko edo parenteral bidez hartuko du, eta, hala, behar nutrizional gehienak beteko ditu.	<b>4. Bikaina</b> Otordu bakoitzean, gehiena jango du. Ez dio behin ere uko egiten janariari. Normalean lau haragi- eta/edo esneki-otordu edo gehiago egiten ditu. Noizean behin ordu tartean jaten du. Ez du gehigarri dietetikorik behar
